



2

OÑATIKO UNIBERTSITATEKO ERRETAULA
ZAHARBERRITZEKO PROZESUA
PROCESO DE RESTAURACIÓN DEL RETABLO
DE LA UNIVERSIDAD DE OÑATE

Xabier Martiarena





Erretaularen lehengo ikuspegia,
belaun-aulkirik gabe.

Vista antigua del retablo sin
reclinatorio.

SARRERA

Oñatiako Unibertsitateko erretaula platereskoaren kontserbazio egoera kaskarra, batez ere beheko alde, banku barren eta lehenengo eta bigarren estaietako ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2000ko urtean multzo osoaren zaharberri-tzeari ekin zion.

1968an, garai hartan Oñatiako alkate Corcostegui jaunak behin eta berriz eskatu zuelarik erretaulan lehenbailehen zerbait egitea, erabat suntsitzeko arriskua begi-bistakoa baitzen, Madrilgo Arte Ederren ministerioak Zaharberritze Institutuko teknikoak igorri zituen, garai hartan honen zuzendaria Jose Maria Martos zelarik, kontserbazio egoerari buruzko lehenbiziko txostenak egitera; eta honek bere gain hartu zuen arazoa, eta ikusiaren araberako lanetan hasi zen.

Madrila 1968an igorritako gutunetako batean berehalako suntsitze arriskua aipatzen da, termita izurrite bat delarik eragile; eta aipatzen da, halaber, predela edo bankuaren eskuinaldea dela intsektu horien hondatze lana nabarien ikusten den tokia.

Madrilgo Zaharberritze Institutuak 1968ko martxoan emandako txosten batek zioenez, laginak aztertu ondoren ikusi ahal izan zuten Unibertsitateko zurezko elementuak hondatzen ari zen intsektu xilofagoa “reticulitermes lucifugus” izenekoa zela, termita esaten zaiona alegia.

1968KO ESKU-HARTZEA

1968ko uztailean hasiko zen izurritea desagerrarazteko esku-hartzea. Madrilgo Zaharberritze Institutuak erretaulatzat bat desmontatzeko lanari ekin zion, bi udal langileren eta Victoriano Celaya arotzaren laguntzaz. Txosten horrek dioenaren arabera, sakristiako ateko eskuineko eta ezkerreko panelak desmontatu zituzten, hauetan pintura-pelikula besterik ez zegoen, eta beste guztia lokatza zen. Ondoren alde bereko frisoa desmontatzen hasi ziren, aldareraino iritsiz. Eta ikusi zuten erretaularen sostenguko habe horizontala alde horretarantz erorita zegoela, burua janda zeukan eta; erortze honen eraginez, piezen mihiatzadura deseginda zegoen. Gauzak horrela, erretaula zurkaiztu egin zuten, erortzeko arriskuan zegoen eta. Zurkaizte honek erretaulak 5 cm gora berreskuratzea ekarri zuen. Eskuineko zatia desmontatzen jarraitu zuten, 2., 3. eta 4. gorputzeko bilbea eskoratzen eta sendotzen segitu zuten

INTRODUCCIÓN

El precario estado de conservación del retablo plateresco de la Universidad de Oñati, sobre todo en su parte inferior, sotobanco primer y segundo piso, ha llevado a la Diputación Foral de Gipuzkoa a retomar la restauración del conjunto en el año 2000.


En el año 1968, el alcalde de Oñati señor Corcóstegui pedía de forma insistente una actuación urgente en el retablo debido al estado de deterioro en que éste se encontraba. Logró que el Ministerio de Bellas Artes enviara a técnicos del Instituto de Restauración, cuyo director era José María Martos, a realizar los primeros informes sobre el estado de conservación y que éste se hiciese cargo del problema y actuase en consecuencia.

En una de las cartas enviadas a Madrid en 1968 se habla del peligro inminente de destrucción a causa de una plaga de termitas y se nos cuenta, así mismo, que es en la parte derecha de la predela en donde se aprecia la labor destructora de los insectos de forma más evidente.

En un informe del Instituto de Restauración de Madrid de marzo del año 1968, se dice que después de un estudio sobre las muestras enviadas, el insecto xilófago que está actuando en los elementos de madera de la universidad es el “reticulitermes lucifugus”, llamado comúnmente termita.

ACTUACIÓN DE 1968

En julio de 1968 comienza una actuación para erradicar la plaga. El Instituto de Restauración de Madrid inicia los trabajos de desmontaje de parte del retablo con la ayuda de dos empleados del Ayuntamiento y del carpintero Victoriano Celaya. Según se nos narra en dicho informe “se desmontan los paneles derecho e izquierdo de la puerta de la sacristía en los que sólo quedaba la película pictórica y el resto era barro”. A continuación se comienza a desmantelar el friso del mismo lado hasta el altar. Se descubre que la viga horizontal de apoyo del retablo está caída sobre ese lado, ya que la cabeza de la misma está carcomida, lo que ha provocado un desensamblaje de las piezas. En vista de lo cual se apuntala el retablo en previsión de riesgo de desplome. El apuntalamiento del retablo provoca que éste se alce o recupere en 5 cm. Se va desmontando la parte derecha, a la vez que se va apuntalando y forzando el



Erretaula desmuntatzeko uneko argazkia. Aguirrebalzategui Funtsa. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa. (GPAH) Oñati (1968).

Foto del desmontaje del retablo. Fondo Aguirrebalzátegui. Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa. (AHPG) Oñati (1968).

bitartean; eta halaz, multzo osoak 7 bat cm errekuperatu zituen gorantz¹.

Argazkietan ikus dezakegunaren arabera, erretaula behetik gorantz desmontatu zuten, hau da, banku barrenezik lehen eta bigarren gorputzera, baina erretaularen beste zatiak ukitzeke mantenduz; ez zen inolaz ere ohiko prozedura, are Sebastian de la Torre Fernández de Soto-ren txostenak aipatzen zuela “taila guztiak bere horma-konketatik atera eta tratamendu kimiko zehatz-zehatz bat ematea (intsektuak akabatzea alegia) eta erretaula osoa desmunta-zea, piezaz pieza, prozesu bera errepikatzearen imajinetan eta arkitekturako piezetan, ahal den neurrian zura bera ere finkatuz”².

entramado 2º, 3º y 4º cuerpo, recuperándose todo el conjunto en unos 7 cm¹.

Según se aprecia en las fotos, el retablo se desmontó de abajo a arriba, es decir, del sotobanco al primero y segundo cuerpo, pero manteniendo el resto del retablo sin tocar, operación bastante inusual, cuando en el informe de Sebastián de la Torre Fernández de Soto, habla de “retirar todas las tallas de sus hornacinas y efectuar un tratamiento químico minucioso (de desinsectación) y de desmontar todo el retablo, pieza a pieza, para repetir el mismo proceso en las imágenes y en las piezas de la arquitectura, a la vez que consolidar en lo posible la madera”².

¹ Oñatiko Udal Artxiboa. Unibertsitatea karpeta. Korrespondentzia. 7284-969 zk.ko txostena (7261/968 erref.)

² Oñatiko Udal Artxiboa. Unibertsitatea karpeta. Korrespondentzia. 7284-969 zk.ko txostena (7621/968 erref.)

¹ Archivo Municipal de Oñati. Carpeta Universidad. Correspondencia. Informe nº. 7284-969 (ref. 7261/968).

² Archivo Municipal de Oñati. Carpeta Universidad. Correspondencia. Informe nº. 7284-969 (ref. 7621/968).

Lanak egiteko modu hau ez zen oso egokia gertatu ezen, ikusi dugunaren arabera, piezen arteko lotura sistema guztiak eten egin behar izan zituzten (ziriak, mihiak, etab.), eta muntatzeko unean arazoak izan ziren piezak lotzeko. Erretaula errenazentista baten finkatze sistema ainguraketa bidezkoa dela hartzen badugu kontuan, hau da, goiko

Esta manera de llevar a cabo la operación no fue muy adecuada, ya que fue necesario cortar todos los sistemas de unión de las piezas entre sí (espigas, lengüetas, etc.), con el consabido problema de sujeción de las piezas a la hora de su montaje. Si tenemos en cuenta que el sistema de fijación de un retablo renacentista se hace a base de anclajes, es

a)



a) Kapitel bateko zurezko larakoaren ebakidura.
a) Sección cortada del tubillón de un capitell.

b)



b) Aralditez eutsitako elementuak.
b) Elementos sujetos con *araldit*.

c)




c) Aralditez egindako betegarria, termitek erasotako zonetan.
c) Relleno con *araldit* de las zonas atacadas por las termitas.

a)



b)



a) Aralditez eutsitako elementuak. b) Ziri edo mihiak berregindako pilastrak.

a) Elementos sujetos con araldite. b) Pilastras con sus lenguetas rehechas.

piezak behekoan mihiztatzen dira, behetik gorako desmuntatze batek ezinezko egiten du sistema hori erabiltea. Hori dela eta, argazkietan ikusten den moduan, 1968ko zaharberritzean desmontatutako piezak lotzeko erabilitako sistema *araldit madera* (epoxi erretxina) materialezko masa izan zen eta, behin lehortu ondoren, elkarren artean itsatsi zituzten.


Piezak desmuntaturik, ikusi zuten asko eta asko erabat hutsik zeudela, eta beste batzuk, berriz, oso hondatuta. Termiten erasoa desagerrarazi ondoren, piezak finkatu beharra zegoen, gaineko azala edo polikromia besterik ez baitzuten. Horretarako berriro erabili zuten *araldit madera* izeneko pasta. Zona huts guztiak *aralditez* bete zituzten, inolako metodologíari edo irizpideri jarraitzeke, eta masak trinkotasuna izan zezan euskarri zurrunen bat behar zen zonetan, pinu-zurezko edo konglomeratuzko estrabeak sartu zituzten. *Palaroid* masa pikortsuak ere (erretxina akrilika) aurkitu dira, disolbatu gabe, konglomeratu gisa, hutsuneak betetzeko.

Garbitze lanari dagokionez, berriz, ez dugu informaziorik, zeren eta udaletxean dauden txostenetan ez baita kontu honi buruzko ezer aipatzen; dena den, garbitze lanen bat izango zela jotzen dugu, nahiz seguruenik oso axalekoa izango zen. Behoko zatian, argizaria, kola eta berniz geruza batzuk aurkitu ditugu, urearen eta polikromiaren distira handiagotzeko-edo emango zituzten eta.

1968ko esku-hartze honetan aldare-mahaia kendu egin zuten, fabrikakoa zen nonbait, eta kapera osoa pikatu

decir, las piezas superiores van encajando en las inferiores, un desmontaje de abajo hacia arriba resulta imposible. Como se aprecia en las fotos, el sistema de sujeción de las piezas desmontadas en la restauración del año 1968 fue a base de masas de *araldit madera* (resina epoxi), que una vez secas, encolaban o fijaban las piezas entre sí.

Desmontadas ya las piezas, pudieron comprobar que muchas de éstas estaban totalmente huecas y otras muy deterioradas. Eliminado el ataque de termitas, había que consolidar las piezas, que sólo mantenían la capa superficial o policromía. Para ello utilizaron la pasta llamada *araldit madera*. Todas las zonas huecas se llenaron de *araldit* sin metodología ni criterio, y en aquellas zonas que precisaban algún soporte rígido para que la masa tuviese cuerpo, introdujeron listones de madera de pino o de conglomerado. También se han encontrado masas de *paraloid* en gránulos (resina acrílica) no disuelta, formando conglomerados, para llenar huecos.



Hondatutako egitura-formak *aralditez* berreraikiak.

Reconstrucción con araldite de las formas estructurales dañadas.

Con respecto a la limpieza, no poseemos información, ya que en los informes existentes en el ayuntamiento no se habla de este aspecto. Suponemos que hubo una limpieza, aunque seguramente ésta fue superficial. Nos hemos encontrado con la existencia, en la parte inferior, de cera, cola y algunas capas de barniz, seguramente aplicadas para elevar el brillo del oro y de la policromía.

En esta actuación de 1968 se eliminó la mesa del altar, al parecer de fábrica, y se picó toda la capilla para dejarla en piedra vista, excepto la bóveda. En el momento de asumir la actual restauración, en lugar de la mesa de altar,

zuten, bistako harriaz uzteko, ganga izan ezik. Zaharberri-
tze lanei ekiteko unean, aldare-mahaiaaren ordez atlante
berri batzuk zeuden, alboetatik kopiatuta, eta panel erliebe-
dun batzuk. Erdikoan Zuazola apezpikuaren ikurra dago
irudikatuta. Zati honetan aplikatutako polikromia ez da kali-
tate handikoa.



Paretak pikatzea akats handia izan dela aipatu behar
dugu, ezen baliteke hauetan harlanduaren despiezearen
marrazkiren bat izatea, eta inskripzio edo eszenak ere bai
agian, ez gaur egun ikusten dugun harlanduskoa, garai
hartan inork ez baitzuen horrelakorik onartuko. Luzitu
guztia desagertu egin da; bakar-bakarrik erretaularen atzeko
aldean eta gangetan mantendu da. Ganga hondo gris iluna-
ren gaineko zurizko despieze batez margotuta dagoela ikusi
ahal izan dugu. Motibo bera aurkitu dugu Santiago elizaren
sakristian, Medina de Rioseco herrian (Valladolid), hala
nola, garai hartako beste hainbat eta hainbat elizatan.


había unos atlantes nuevos copiados de los laterales y unos paneles con relieves. El central, representa el emblema del obispo Zuazola. La policromía aplicada a esta parte no era de gran calidad.



1968an berregin eta polikromatutako bankuko eremua.
Zona del banco recreada y policromada en el 1968.

Ama Birjinaren aurpegia, berniz herdoilduzko orbanak dituela.
Rostro de la Virgen con manchas de barniz oxidado.

Hay que llamar la atención sobre el error que ha supuesto el picado de las paredes, ya que es posible que éstas estuviesen pintadas con un dibujo de despiece de sillería y con posibles inscripciones o escenas, y no el sillajero que hoy vemos, aspecto que nadie de la época hubiese admitido. Todo el revoco ha desaparecido; sólo se ha conservado en la parte superior trasera del retablo y en las bóvedas. Hemos podido observar que la bóveda está pintada con un despiece en blanco sobre un fondo gris oscuro, hoy cubierto por una capa de cal. Este mismo motivo está presente en la sacristía de la iglesia de Santiago en Medina de Rioseco (Valladolid) y en otras muchas iglesias de esta época.



Medina de Riosecoko
Santiagoren elizako
sakristiako gangako
pintzeladura.

Pincelatura de la bóveda
de la sacristía de la iglesia
de Santiago de Medina de
Riogordo.



Erretaularen atzealdea, gagan pintzeladura arrastoak dituela.

Parte trasera del retablo con restos de pincelatura en la bóveda.